



## ETAren Agiria Euskal Herriari

ETAk, nazio askapenerako euskal erakunde sozialista iraultzaileak, agiri honen bidez hilabeteotako gertakizun nagusien eta prozesuaren egungo egoeraren inguruan bere iritzia helarazi nahi dio Euskal Herriari:

2011ko urrian irismen sakoneko bi gertakari eman ziren Euskal Herrian. Batetik, nazioarteko pertsonalitate ezagunek Euskal Herriak bizi duen gatazka konpontzeko proposamen zehatza aurkeztu zuten Aieteko Adierazpenean. Bestetik, ETAk Adierazpenaren lehenengo puntuak egiten zion eskaerari erantzun baikorra eman eta jarduera armatuaren behin betiko amaiera iragarri zuen.

Biak ziklo berri baterako mugari historikoak zirela genion orduan. Konfrontazio armatuaren parametroetan ez aurrera ez atzera ginelarik, Aieteko Adierazpenak blokeotik atera eta konponbide egonkorra ezartzeko bidea eskaini zuen, euskal eragileen adostasun zabalarekin eta nazioarteko eragile garrantzitsuen babesarekin. Ondorengo ETAren erabakiak ibili beharreko bidean lehenengo urratsa ekarri zuen, salbuespen egoera gainditzeko eta, elkarrizketa eta akordioaren bidez, gatazka konpontzeko aukerari sendotasuna emanez.

Zortzi hilabete beranduago, honoko irakurketa egiten du ETAk:

### Euskal Herriak konponbidea nahi du

Aieteko Konferentziak euskal lurralde osoko eta eremu ideologiko eta sozial askotariko eragileak bildu zituen, ongi errotutako konponbide nahiaren erakusle gisa. PP eta UPN ez beste indar politiko guztiak egon ziren.

Geroztik, euskal jendarteak ilusioz erantzun du ere eta bere nahiak uholde gisa kaleratu ditu, euskal preso politikoen eskubideak errespetatzeko, salbuespen neurriak indargabetezko eta, oro har, konponbidean urratsak eman behar direla aldarrikatzerakoan.

Konponbiderako proposamenaren arrazionaltasunarekin batera, Euskal Herriaren gogoia eta nazioartearen konpromisoa prozesuaren oinarri sendoak ditugu.

### Estatuak bakearen kontrako agenda maneiatzen ari dira

Tamalez, hilabeteotan konponbide aukerak etsaiak dituela ikusi ahal izan dugu. Espainia eta Frantziako Gobernuak ez dute erantzun positiborik eman. Alderantziz, elkarrizketari uko egiteaz gain, hasiera-hasieratik prozesua gelditu eta zangotrabatzeko estrategiari eutsi diote.

Espainia eta Frantziako gobernuen jarrera kaltegarriaren ondoan, bake aukera zapuzteko, gogotik ari den multzo oso bat ageri zaigu. Inteligentzia zerbitzuek, Espainia eta Frantziako indar armatuek, hainbat epailek, mendeku gose diren elkarteek eta zenbait komunikabidek eraso antolatua darabilte konponbideak aurrera egin ez dezan.

Estatuek eraso zerranda luzea burutu dute. Besteren artean:

- Euskal preso politikoen biziarteko zigorraren berrespena.
- Ezker abertzaleko militanteen jarduera politikoa zigortu duten epaitegien erabakiak.
- Euskal preso politikoeziko ankerkeria eta xantaia, sakabanaketa eta gaixorik dauden presoek eta dagoeneko zigorra bete dutenen espetxealdia mantenduz, besteak beste.
- Iheslari politikoen kontrako polizia operazioak.

- Eskubide politiko eta zibilen urraketa.
- Euskal herritarren atxiloketak, bi herritar torturatuak izan direlarik.
- Konponbidearekin konpromisoa agertu duten nazioarteko eragileen kontrako erasoak.
- Indar armatu eta polizialen jokabide bortitza eta mehatxu etengabea.
- Ezker abertzalearen legez kanporatzeari eusteko mehatxuak.

Kezkagarriak dira, halaber, konponbide prozesuaren aurkako mezu zaparrada edota ETAREN konpromisoaren gainean zalantza sortzeko gezur etengabeak.

Aurretik askotan egin duten bezala, konponbiderako aukera baliatu beharrean, Estatuak indarkeriaren eta inposizioaren bitartez gatazkaren ziklo berri baterako hazia eraitzeko ahaleginean dihardute.

Bestalde, ohartarazi nahi dugu Espainia eta Frantziako indar polizialak errepresioan sakontzeko baliatzen ari direla ETAK prozesua bultzatzeko duen konpromisoa. Prozesua kaltetu lezaketen egoerak ekidin asmoz eta ustekabeko enfrentamenduak saihesteko helburuarekin ETAK hartu dituen erabakiak jazarpena areagotzeko erabiltzen ari dira, arrisku handiko egoerak sortuz. Era berean, materiala baldintza seguru eta egonkorretan biltzeko egiten ari den ahalegina polizia dispositiboak antolatzen erabiltzen ari dira. Jarduera horiek inolako konponbide prozesuarekin batera ezin dira.

#### Alderdikeria prozesuarentzat kalte

Horiek horrela, kezkagarria da zenbait alderdi politiko izaten ari den jokabidea. Alderdi interesak direla medio, PNV, PSOE, UPN eta PP alderdiek ekimen bateratuta darabilte ezkerreko independentismoa higitzeko asmoarekin. Ezker abertzaleak prozesua elikatzeko burutzen duen ekimen bakoitzaren aurrean ematen duten mezu ezkorrak eta Espainia eta Gasteizko gobernuen urrats antzezpenei eman dieten babesak helburu maltzurra dute. Ezker abertzalea ororen errudun agerrarazi eta urratsak emateko erantzukizuna bere gain dagoela jendarteratu nahi dute. Eta baldintza eta aitzakia zerrenda amaigabea ezarritik, prozesua lokaztu eta ibilgaitz bilakatzen ari dira.

Aipamen berezia egin nahi diegu PSOE eta PNVren jarrerari. PSOEek Gasteizko Gobernuak konponbidearen aldeko jarrera aktiboa izango zuela iragarri zuen. Alabaina, PSOE Espainian gobernu arduetan egon zen bitartean, Gasteizko Gobernuak ez zuen urrats bakar bat ere eman. Alderantziz, Rubalcabaren aginduz Espainiako Gobernuaren jarrera oztopatzailea babestea eta konponbidetik urruntzea erabaki zuen. Ondoren ere, salbuespen bakan batzuk kenduta, konponbidearen gakoak desitxuratu nahian aritu da, batez ere euskal presoei eta ETAREKIKO elkarriketen beharrari dagokienez.

PNVri dagokionez, jarrera alderrai eta kontraesankorra izaten ari da. Aieteko Adierazpena txalotzetik bertan azaltzen ziren puntuen kontrako diskurtso eta jardura izatera igaro da. Adierazgarria da oso, konponbidearen kontra egiten duen gobernuarekin ulerkor agertzen den bitartean, ezker abertzaleari zuzentzen dizkiola bere kritikarik zorrotzenak, baita elkarriketa aldarrikatzen duenean ere. Ezker abertzalearen biktimismoaz mintzo da, erasoak eta eskubide urraketak salatzen mobilizazio guztietatik ihes egiten duen bitartean. Ulergaitza egiten da.

Horrela, PNV, jarrera itxienak laguntzen ari da, Espainiako Gobernuaren mezu ofizialaren bolumena igotzen duelarik, konponbideak aldarrikatzen dituzten herritarren txistuak entzun ez daitezen.

Ezker abertzaleak prozesuan aurrera egiteko proposatzen duen guztiaren kontra baldin badago, zein da, bada, PNVren proposamena? Ba al du ekarpen eraikitzaileak? Besteek egin beharko luketena agintzeaz gain, ba al dago konpromiso zehatzen bat hartzeko prest?

#### Prozesua espetxeetan kateatu nahi dute

Euskal preso politikoaren egoera eztabaida politikoaren erdigunean egon da hilabete hauetan. Jendartearen aldarria ozena izan arren, presoen eskubideen errespetuari begira ez da urrats positiborik eman, ez eta latzenak diren egoerak gaintzeko ere. Sakabanaketa mantentzea, gaixorik dauden presoak ez askatzea eta zigor luzapenak, esaterako, gero eta ulertezinagoak dira edozeinen begietara.

Errealitate lazgarri horri amaiera eman ordez, euskal preso politikoei xantaiarako plana aurkeztu du Espainiako Gobernuak. Aldaketa antzeztu dute ezer alda ez dadin, euskal preso politikoen muturreko egoerari zilegitasuna eman asmoz. Ez da konponbideari zuzendutako proposamena, Espainiako Gobernuak berak aitortu duenez. Onartu ezinezko baldintzak ezarriz aurrerapen aukera oro blokeatu nahi dute, horrela prozesua geldituz luze batean sartuko dutelakoan.

Frantziako agintariak ere presoan egoera izan dute ahotan. Baina presoak hurbiltzearen alde mintzo arren, euskal preso politikoei Frantziako Estatuko lurralde osoan sakabanatuta eta beren eskubide oinarrikoenak zapaldu ditardute.

Oro har, gerra estrategiaren baitan EPPK zigortzeko eta zatitzeko helburuz eraiki den salbuespen legedia konponbiderako arau izan behar dela defendatzen dutenak egiten ari diren iruzurra salatu nahi dugu. Euskal Herriak konponbide sendo eta zentzudunak behar ditu eta halako jarrerak egoera luzaro blokeatzeko aitzakia baino ez dira.

Horren aurrean, txalagarria da EPPK erakusten ari den jarrera. Euskal preso politikoei konpromiso kolektiboa beritu, elkarrizketarako deia luzatu eta adostasunetara iristeko urratsak emateko prestutasuna agertu dute. Honek guztiak konponbiderako tarte zabala eskaintzen du, gobernuen aldetik borondate politikoa egon ezker.

### Euskal Herriak konponbidea behar du

Salbuespen neurriek, sufrimenduak eta indarkeriak ezaugarritzen dute oraino Euskal Herriko agertoki politikoa. Egoerarik latzenek konpondu gabe jarraitzen dute eta eraso larri berriak gehitu zaizkie hilabeteotan.

Sorturen legeztapenarekin salbuespen egoera indargabetzeko bidean urrats garrantzitsua eman da eta premiazkoak diren beste urrats positiboen aurrekari izan behar luke. Edonola ere, Sorturen auziak datozen erronkei begira ezinbestekoa izango den presio sozialaren eraginkortasuna erakutsi du.

Bestalde, salbuespen egoera eta gatazkaren ondorioak gainditzeko premiarekin batera, ezin da bazterrean utzi blokeoaren beste aldea: Euskal Herriak Frantzia eta Espainiako estatuen menpe jarraitzen duela, erabakitzeko eskubidea ukatuta eta herritarren beharrezko erantzuteko baliabide askirik gabe. Egungo testuinguru politiko eta ekonomikoan eta Madril eta Parisetik herritarren kontrako neurriak etengabe inposatzen ari diren honetan, Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeko duen premia gero eta nabarmenagoa da.

### ETAren Adierazpena:

1.- Jarrera oztopatzaileek euskal jendartea etsipenera eramanez nahi dute, beste etorkizun bat ezinezkoa dela sinetsarazteko. Horren aurrean, ETAk Euskal Herrian bake eta askatasun etorkizun bat posiblea dela aldarrikatzen du. Indarkeriarik gabe, preso eta iheslari politikorik gabe, indar armatuen larderiarik gabe, inork bere burua mehatxatuta ikusi gabe. Elkarrizketa eta akordioaren bidez gatazka politikoa gainditzeko posiblea eta beharrezkoa da, euskal herritarrek inolako mugarik gabe beren etorkizunaren jabe izateko hitza eta erabakia izan dezaten. Dena dugu irabazteko, denok dugu zer irabazi.

2.- Aukera historikoa da eta ardura historikoaz jokatu beharra dago, mendetako gatazka bizi duen herriak behin betiko bake eta askatasunaren xendratik abia dadin. Bide neketsu eta korapilatsua dugu aurrean eta guztion ahalegina eskatzen du. Ez da zeharkako bideak ibiltzeko tenorea, ez eta gatazka berrien iturri izan daitezkeen erdibideko konponbideak bilatzeko garaia ere. Gatazkaren konponbideari bere osotasunean eta bere sakontasunean ekin behar zaio, seriotasunez eta zentzuz. Horregatik, ETAk arduraz eta modu eraikitzailean jokatzeko deia luzatzen die eragile guzti-guztiei, denontzat onuragarria den aukera usteltzen ez uzteko.

3.- ETAk gogoetarako deia berezia luzatu nahi dio PNVri, bere arduradun, militante eta oinarri sozialari. Merezki al du alderdi interes hutsengatik konponbide aukera kaltetzea? Onuragarria al da hauteskunderi begira ezkerreko independentismoa higitzearen prozesua zangotrabatu nahi dutenekin behin eta berriz lerrotzeko? Ezezkoan dago ETA eta behingoagatik denok Euskal Herriaren eta euskal herritarren interesen alde bultzatu beharko genukeela deritzogu.

4.- Eragile guztien parte hartzea funtsezkoa izanik, Euskal Herria ezin da arduradun politikoei egingo dutenaren zain gelditu. Egungo jarrera itxiak eta oztopoak gainditzeko herriak du giltza. Euskal herritarren presioa eta indar biltzea ezinbestekoak dira gotortuta daudenak mugiarazteko. Azken batean, herriaren taupadak mantendu behar du prozesua bizirik.

5.- ETAK jakinarazi nahi du hilabete hauetan zehar konponbide prozesua bultzatzeko eta egituratzeko jardunari jarraipena eman diola. Urriaren 20an hartutako erabakiari eutsi ez ezik, elkarrizketa bideak zabaltzeko ahaleginak biderkatzen ari gara, nazioarteko eragileekin harremanak sendotzen eta prozesuak eskatzen dituen barne egokipenak gauzatzeko, elkarrizketetarako ETAREN Ordezkaritza osatuz, besteak beste. Aurrerantzean ere bide berari eusteko konpromisoa adierazi nahi dugu, bakea eta askatasuna helburu duen prozesua bururaino eramateko.

GORA EUSKAL HERRIA ASKATUTA! GORA EUSKAL HERRIA SOZIALISTA!  
JO TA KE INDEPENDENTZIA ETA SOZIALISMOA LORTU ARTE!



Euskal Herrian, 2012ko ekainaren 27ean

Euskadi Ta Askatasuna  
E.T.A.

